# KOSTALDEKO IBILBIDEA

# SENDERO LITORAL

Euskaditik igarotzean, E9 “Europako Kostaldeko ibilbidea” mendiko ibilbide luze (GR) gisa seinaleztatuta dago. Ibilbide hauekin bat egiten du: GR 121® ”Talaia ibilbidea” Gipuzkoan, eta GR 123® “Bizkaiko Bira” Bizkaian.

*A su paso por Euskadi, el E9 “Sendero Litoral Europeo” se encuentra señalizado como sendero de gran recorrido. Coincide con el GR® 121 “Sendero Talaia” en Gipuzkoa y con el GR® 123 “Vuelta a Bizkaia” en el tramo vizcaíno.*




## GOMENDIOAK

Saia zaitez etapak norbaitekin egiten, eta esan nora zoazen eta noiz etorriko zaren.

Planifikatu ondo etapak, eta diseinatu zure aukeren arabera.

Eraman oinetako eta arropa egokiak, eguraldiaren iragarpena kontuan hartuta.

Eraman beti behar den beste hornigai (ura, janaria, botikina, mugikorra ondo kargatuta, dirua, dokumentazioa…).

Errespetatu ingurunea eta gainerako ibiltariak.

## RECOMENDACIONES

*Procura realizar las etapas en compañía y deja aviso de dónde vas y cuándo vuelves.*

*Planifica bien las etapas y adáptalas a tus posibilidades.*

*Lleva calzado y ropa adecuados teniendo en cuenta la predicción del tiempo.*

*Lleva siempre equipo suficiente (agua, alimentos, botiquín, móvil bien cargado, dinero, documentación…).*

*Respeta el entorno que visitas y al resto de senderistas.*

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Ed. 2025

Gipuzkoako hiriburua atzean utzita, Kostaldeko ibilbidea Igeldo mendira igotzen da, eta, ondoren, Mendizorrotz eta Kukuarri mendien magaletik sigi-saga jarraitzen du. Itsasoa zeruertzean ikusiz, han eta hemen sakabanatutako baserriz zipriztindutako mendi-hegal berdeen irudi ederrak lagun izango ditugu Oriako itsasadarrak bustitako Orioko antzinako balea-herrirantz egingo dugun ibilbidean.

*Dejando atrás la capital guipuzcoana, el Sendero Litoral se encarama al monte Igeldo para seguir después serpenteando por las faldas de los montes Mendizorrotz y Kukuarri. Las estampas de verdes laderas salpicadas por caseríos solitarios con el mar al fondo nos acompañarán en nuestro recorrido hacia la antigua localidad ballenera de Orio, bañada por la ría del Orio.*

16,3 km | 548 m | 5h 15’ | MIDE 1-2-2-3




**MIDE**

1 Ingurunean arriskuak egon daitezke
*El medio no está exento de riesgos*

2 Bidexkak edo jarraibidea adierazten duten seinaleak
*Sendas o señalización que indica la continuidad*

2 Zaldibideko ibilaldia
*Marcha por caminos de herradura*

3 3 eta 6 ordu arteko ibilaldi jarraia
*De 3 a 6 horas de marcha efectiva*

**SEINALEZTAPENA**
***SEÑALIZACIÓN***

GR® 121

Ibilbidearen jarraipena
*Continuidad del sendero*

Norabide aldaketa
*Cambio de dirección*

Norabide okerra
*Dirección equivocada*

## Bidezatia / *Tramo*

## DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN ▶ TXERRITXUTU

km 0 **DONOSTIA.** Kontxa eta Ondarretako itsas pasealekuak zeharkatuz hasiko dugu etapa. Marbil Bideko harrizko eskailerek markatzen dute Igeldo mendirako igoeraren hasiera. Errepide ondoko aparkalekura iristean, alde batean utziko dugu 1912an inauguratu zen jolas-parke historikoaren sarrera. Ehunka urteko jolas klasikoak eta proposamen modernoak uztartzen ditu parkeak, eta Gipuzkoako hiriburuaren gaineko ikuspegi ezin hobeak eskaintzen ditu.

km 4,5 **BUENAVISTA.** Igeldoko itsasargiak zaintzen dituen labarrak ikusi ondoren, Buenavista jatetxe zaharraren parean, espaloia utzi eta etxe eta txaleten artean sartuko gara. Pixkanaka-pixkanaka zelai berdeak eta baserri sakabanatuak izango ditugu aurrean, eta itsasoaren ikuspegi ederrak landazabal atlantikoan zehar.

km 0 ***SAN SEBASTIÁN.*** *Iniciamos la etapa recorriendo los paseos marítimos de La Concha y Ondarreta. Las escaleras de piedra de Marbil Bidea marcan el comienzo del ascenso al monte Igeldo. Al llegar al aparcamiento junto a la carretera dejamos a un lado la entrada al histórico parque de atracciones, inaugurado en 1912, que combina clásicos centenarios con modernas propuestas y ofrece vistas inmejorables sobre la capital guipuzcoana.*

km 4,5 ***BUENAVISTA.*** *Tras admirar los acantilados custodiados por el Faro de Igeldo, a la par del antiguo restaurante Buenavista abandonamos la acera para adentrarnos entre casas y chalets. Poco a poco se despliegan ante nosotros verdes prados con caseríos dispersos y espectaculares panorámicas del mar a lo largo de la campiña atlántica que será la tónica general de esta etapa.*

eu es

# KOSTALDEKO IBILBIDEA SENDERO LITORAL

EUSKAL KOSTALDEA COSTA VASCA

3

## DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN ▷ ORIO

Km 16,3 | 548 m | 5h 15´



E9

EUSKADI BASQUE COUNTRY



## EZ GERATU EZAGUTU GABE!
## ¡NO TE LO PIERDAS!

Ondarreta hondartzaren amaieran, ibilbidetik atera gaitezke eta Eduardo Chillidaren "Haizearen orrazia" eskultura ezaguna ikustera hurbildu. Batez ere olatuak dauden egunetan benetan ikusgarria da ikuskizuna.

*Al final de la playa de Ondarreta podemos desviarnos del trazado para acercarnos a contemplar la conocida escultura de Eduardo Chillida "El peine del viento". Especialmente en días con oleaje, el espectáculo verdaderamente merece la pena.*





Orioko alde zaharra XIII. mendekoa da. Kale aldapatsu eta mailakatuak ditu, ia labirinto itxuran trazatuak, eta armarriak, hareharri landuak, koloretako balkoiak eta harrizko zolak kontserbatu dituzte, Erdi Aroko kutsu nabarmena ematen diotenak.

*La parte vieja de Orio, data del siglo XIII. Sus calles empinadas y escalonadas, de trazado casi laberíntico, conservan blasones, piedra arenisca labrada, balcones de colores y empedrados que le dan un marcado aire medieval.*



Agandurutik Oriorantz
*De Aganduru hacia Orio*

## Bidezatia / *Tramo*
## TXERRITXUTU ▶ ORIO

km 8,8 **TXERRITXUTU.** Txerritxutu parajean, egurrezko aterpe bitxi baten ondoan, asfaltozko auzo-bidea atzean utzi eta lurrezko bidexka batean sartuko gara, basotsuagoa, eta gaztainondoak eta bertako beste espezie batzuk, han eta hemen barreiatuak, ikusteko aukera izango dugu. Gure boten azpian, Orio eta Donostia lotzen zituen galtzada zaharreko harriak ageri dira zati batzuetan. Baserri pare bat igaro ondoren, Orioko errepidera iritsiko gara. Hura laster utzi eta Aganduruko galtzadatik jaitsiko gara.

km 13,8 **AGANDURUKO GALTZADA.** Galtzada zahar hori, Gipuzkoan ondoen kontserbatu denetako bat, desagertu egiten da izena ematen dion baserriaren ondoan, eta, txakolin-mahasti batzuen ondotik igaro ondoren, Antilla hondartzara jaisten den errepidea gurutzatuko dugu. AP-8 autobidearen azpiko pasabidea bilatuko dugu azken igoerari ekin aurretik, eta San Martin baselizara iritsiko gara. Erdi Aroko baseliza da, baina XVI. mendean berritu egin zuten. Arranparrillan erretako arrainaren usaina nabaritzen hasiak gara dagoeneko. Orioko arrantzale-herrian sartzen ari gara.

km 16,3 **ORIO**

---

*km 8,8* ***TXERRITXUTU.*** *En el paraje de Txerritxutu, junto a un curioso refugio de madera, dejamos atrás el camino vecinal asfaltado para adentrarnos en un sendero de tierra, más boscoso, salpicado de castaños y otras especies autóctonas. A tramos bajo nuestras botas asoman las piedras de la antigua calzada que unía Orio con San Sebastián. Tras pasar un par de caseríos, alcanzamos la carretera de Orio, que pronto dejamos para descender por la calzada de Aganduru.*

*km 13,8* ***CALZADA DE AGANDURU.*** *La vieja calzada, una de las mejor conservadas de Gipuzkoa, desaparece junto al caserío que le da nombre y, tras pasar junto a unos viñedos de txakoli, cruzamos la carretera que desciende a la playa de Antilla. Buscamos el paso bajo la AP-8 antes de acometer el último ascenso y alcanzar la ermita de San Martín, de origen medieval aunque renovada en el s. XVI. Ya huele a pescado a la parrilla. Estamos entrando en la villa marinera de Orio.*

*km 16,3* ***ORIO***

## KONTUAN HARTU BEHARREKOAK
## A TENER EN CUENTA

- Bidexka ez da Igeldoko herrigune txikitik igarotzen. Han badaude zerbitzu gutxi batzuk, baina haietara joan nahi izanez gero, desbideratu egin beharko dugu.
- *El sendero no pasa por el pequeño núcleo de Igeldo, donde se concentran algunos pocos servicios. En caso de querer acceder a estos, habrá que desviarse.*

## TELEFONO INTERESGARRIAK
## TELÉFONOS DE INTERÉS

| | |
|---|---|
| Turismo bulegoak<br>*Oficinas de Turismo* | |
| Donostia-San Sebastián | 943 48 11 66 |
| Orio | 943 83 55 65 |
| Larrialdiak<br>*Emergencias* | 112 SOS DEIAK |

turismoa.euskadi.eus/eu/
turismo.euskadi.eus/es/

